



*Datorren
urtera arte!!*



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 11tik 15era (biak barne)



**Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak**





*San Pedro Jaietako
argazki eta
bideoak
txintxarri.eus
orrialdean dituzue
ikusgai*



San Pedro jaiak amaitu dira! Sorgin eta aztien sorginkeria ere amaitu da! Lasarte-Oria egunerokotasunera bueltatu da. Atzera begirakoa eginez, gozatzeko bost egun igaro dira eta ederki aprobetxatu ditu orduak batek baino gehiagok. Herriko kaletan giro ederra izan da eta Okendo plaza betea ikusi dugu hainbat momentutan, tartean Danborradan. Herritar eta kanpotar ugari hurbildu ziren Doctor Deseo edo Ken Zazpi taldeen doinuak abestu eta dantzatzera. Kirola ere egin ahal izan dute askok zezen, buruhandi eta Zezen Suzkoen aurrean. Zaldi lasterketa eta zaldia eta pertsonaren arteko erronka ikusgarria izan ziren Atsobakarreko parkean. Euria ere izan zen protagonista larunbata goizean eta haur danborradako txikiek pairatu zuten gehien. Bad Sound System taldearen erritmora eman zioten herritarrek amaiera jaiei. Orain normaltasuna izango da nagusi. 360 egun itxaron beharko dira berriro ere jaiak eztanda egin dezan. Baina uda dugu aurretik, gozatu eta joan motorrak berotzen urrian Euskararen Maratoia dator eta!!

**hurrengo
zenbakia**

txintxarri

Uztailaren 11n

**Informazio gehiago txintxarri.eus
orrialdean edo sare sozialetan**

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea
Eizagirre, Maddi Noriega, Iñigo
Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz



Ekainaren 28a

Lehenengo jai egunean hiru txupinazo izan ziren; Landaberriko gaztetxoek udaletxe zaharretik jaurtitakoa, Okendo plazan arratsaldean Landaberriko irakasle eta gura-soena eta aurten azkena Sorgin Jaiena izan zen euren 15. urteurrenean. Sorgin dantza izan zen ekitaldi jendetsuena eta helduen danborradak girotu zuen lehenengo parranda gaua. Jarraian Okendoko oholtzan Izeberg eta Erokomeri izan ziren.



Haurren txupin jendetsua.- Herritar ugari gerturatu zen Udaletxe Zaharretik jaurti zen umeen txupinera. Landaberri ikastola izan da aurtengo omendua bere 50. urteurrenean eta eguerdian eskolako gaztetxoek egin zuten pregoia. Kanean Udal musika eskolako trikitilariak aritu ziren giroa jartzen baita Oaintxe in deu txaranga ere. Aurten lehenengoz Ttakun kultur elkarteak Patxintxi sariak banatu zituen eta herritarren bozkek hala erabakita, sariak Rosa Ventoso eta Ramon Uribeberriarentzat izan ziren. Txupinaren ostean gazte koadrilek herriko kaleak hartu zituzten eta musika lagun, festa giroaz gozatu zuten.

*Ondo pasa izana
espero dugu!*



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Txistorra
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Basurde burua
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Baserri pateia



Patxintxi saria eman zien Ttakunek On Ramon eta Avenida tabernako Rosari.



Haur txupina baino lehen gaztetxoak koloredun kamisetak sinatzen ibili ziren Okendon.



Gaztetxoak izan ziren lehenak festaz gozatzeko, txupinaren aurretik zita egin zuten Okendo inguruan lagun koadrilan txupinera gerturatzeko.



Udal Musika eskolako trikitilariak aritu ziren jai giroa jartzen Okendon txupina jaurti aurretik, Ondoren, herriko Oaintxe ein deu txaranga arduratu zen jendea dantzan jartzeaz.

SEMBLANTE ANDALUZ



Jai zoriontsuak igaro izana espero dugu

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 36 99

Ondo pasa izana espero dugu!

kima masaje-lekua 


Goyo Martin
Xabier Carbayeda

Errepideko, BTT eta triatloiko txirrindulariaren biomekanika

**Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366 197
LASARTE-ORIA**

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD



38-60 neurriak



Ttakunek antolatuta, makarronada eta ur jolasak izan ziren haur eta gaztetxoentzat Atsobakar parkean, denek ederki pasa zuten lagunekin jolasean.



Zumba erakustaldia egin zuten Biyak Bateko kideek Isla plazan herriko kaleetan barrena Sorgin Dantza zebilen bitartean.

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 943 37 27 37

info@garciabus.com

www.garciabus.com



*Jaietan gozatu
izana espero dugu!*

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu proposak

• Bestelako zerbitzuak

Sorgin Dantzan sustatzaileei omenaldia.-

Beste urte batez, ekitaldi arrakastatsuenetako bat izan zen Sorgin Dantza. Oriatik abiatu zen, Okendo Plazara bidean. Joan den urtean bezala, bi zortzikote osatu ziren; gaztetxoena batetik eta helduena bestetik. Orian lehenengo dantza eskainita, erdigunera abiatu zen Sorgin Dantza. Musikarien karrozaren atzetik dantzari guztiak ilaran, gaztetxoek gidatuta. Ibilbidean zenbait geldiune egin ziren ura edan eta indarra osatzeko. Okendora iritsita, 1982. urtean Sorgin Dantza berreskuratu zuten bost kideak omendu zituzten. Bertan izan ziren horietatik bi; Sebastian Kerejeta eta Felix Telleria, baita Iñaki Orotegi, Jose Mari Bardaji eta Alfredo Goiaranen senideak ere. Aurtengo bitxikerien artean, karrozaren zati bat erori zen zuhaitz baten kontra jo ostean, hala ere, aurrera egiteko arazorik ez zuen izan.





Txupinazoarekin batera lehertu zen festa.- Landaberriko ikastetxeko kideek hartu zuten hitza; esker hitzak izan zituzten mende erdi honetan zehar bidaide izan dituztenekin, eta, goizean bezala, herritarrei festak goza zitzatela eskatu zieten. Kolorez bete zen orduan plaza; koloretako puzgarri erraldoiak airean dantzan, koloretako zintak hegan; festa-giro bikaina bizi izan da Okendon. Landaberri ikastolaren 50. urteurreneko doinua ere entzun ahal izan da. Errausketaren aurkako ekimena ere izan zen. Hainbat herritarrek maskarilak eraman zituzten txupinan zehar.



JAIETAN GOZATU IZANA ESPERO DUGU!

Bizikleten salmenta eta konponketa

MKL txirrindak

Geltoki kalea 25, atzealdea tel 943 36 16 14
Lasarte Oria 20160



AIZPURUA
Pinturak

Ondo pasa izana espero dugu!

- Pintura plastikoak bereziki
- Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan

Zumaburuko industrialdea, Lasarte-Oria
TL. 943 36 21 53



Herria 15. urtez sorgindu zuten.- Sorgin Jaietako txupina jaurtitzearekin batera lehertu zen festa Sorgin Gunean. Herritar ugari gerturatu zen momentu horretaz goatzera. Txupina jaurti baino lehen, dantzari talde batek ikuskizuna eskaini zuen, suziri eta guzti. Ikusgarria izan zen. Horren ostean, dantzarietako batek txupina eskuan hartu, su eman eta zerura begira jarri ziren denak, festak eztanda egin arte. Era honetara, hamabost urte hauetan festa eredu alternatibo hau posible dela erakusteko lanetan aritu diren sorgin eta aztiei omenaldia egin zitzaion. Aurretik egitarau ofizialaren barruan, Demode Quartet taldearen 'Epa!' emanaldiaz gozatu zuten herritarrek Okendo plazan. Euskal abesti ezagunen moldaketak eskaini zituen taldeak. Honetaz gain, Sorgin Jaien txupinaren ostean, Ttakun KE-k antolatutako zikiro janak hartu zuen udaletxeko arkupea. Arratsalde osoan erretzen egon zen zikiroa dastatu ahal izan zuten ehun bat herritarrek.



Demode Quartet taldearen emanaldiak herritarrek Okendo plazan mantendu zituen.



Zikiro jan gozoa ere izan zen Udaletxeko arkupeetan. Bertan bildu ziren hainbat herritar.

aldizkariak
esku-orriak
kartelak
liburuak
egutegiak
katalogoak
papeleria
agendak
koadernoak
karpetak
logotipoak

INPRENTA
offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

**DISEINU
EDITORIALA**

Ondo pasa
San Pedro jaietan!



antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus



Lasarte-Oria martxan jarri zuten danborradak.- Danbor hotsekin bukatu zen San Pedro bezpera. ATLO taldearen eskutik, urteroko ohitura bilakatu den danborradaz gozatu zuten lasarteoritarrek. Danborrak astindu aurretik, taldeko zenbait kidek omenaldiak jaso zituzten aurtengoan ere. Iñaki eta Xabier Mitxelena anaiak eta Jose Mari Iruretagoienari egin zitzaaien aitortza. Txema Vallesek eta Olatz Mitxelenak aurkeztu zuten ekitaldi xumea. Danborrada laguntzen aritu diren Insausti tabernak eta Asador Riojanos jatetxeak ere jaso zuten aitortza. Horren ostean, erakustaldi bikaina eskaini zuten danbor-joleek Okendo plazan. Ohiko doinuak entzun ahal izan zituzten herritarrek, eta baita aurtengo berrikuntza nagusia ikusi ere: Jokin Goenaga herritarrak konposatutako 'Lasarteko Martxa'. Felix Telleriak aginte-makila utzi zion Goenagari, pieza hori berak zuzendu zezan. Okendon aritu eta gero, herriko kaleak alaitzen ibili ziren danbor-joleak.





Gorputza astinduz ordu txikiak arte.- Gauerdia baino beranduago jada, Isla zein Okendo plazetan gorputzak astindu zituzten parranderoek, Ibai Berriak, Izeberg eta Erokomeriren eskutik. Lehenengo jai gauean parrandarako gogoia eduki zuten herritarrek aukera bat baino gehiago eduki zuten gorputza astintzeko. Asko Isla Plazara joan ziren, Ibai Berriak taldearen eskutik dantzatzera. Sorgin Gunea ere jendez bete zen gauean zehar, Izeberg eta Erokomeri taldeen emanaldiez gozatzeko. Ekitaldi horiekin guztiekin ase ez zirenek goizeko ordu txikiak arte luzatuko zuten festetako lehenengo parranda.



Herriarrek ederki egin zuten dantza Erokomeri taldearen eskutik. Taldeko kideek errausketaren aurka daudela adierazi zuten, emanaldian maskarak jantziaz.



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxe: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com



Jaiak ondo igaro izana espero dugu!



Dianarekin batera esnatzen joan zen herria, Extremadurako danbolin-joleek kalejira egin zuten ere Okendo plazaraino.



San Pedro elizan egin zen meza nagusian, Erketzek dantzatu zuen.

Ekainaren 29a

San Pedro eguna

Landaberi ikastolari egindako emanaldia izan zen eguneko ekitaldi nagusia. Hala ere, mota guztietako ekintzak izan ziren, meza nagusitik hasi eta gaueko kontzertuetan bukatu arte; pilota partidak, Extremadurako miga dastaketa, herri kirolak, sardina jana, sagardo dastaketa, dantza eta antzerki ikuskizunak... Sorgin Jaietan Kamioi Rockak arrakasta handia izan zuen.



Alboka abesbatzak kantatu zuen ere mezan.



Artetxe-Elola eta Genis-Altuna aritu ziren Loidi Barrenen indarrak neurtzen.



Ondo pasa izana espero dugu!!

- AZALEZTATZEAK
- ESTANPAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria



Jaietan ondo pasa izana espero dugu!

Kale Nagusia 40
Tel: 943 36 39 64
LASARTE-ORIA



Buruhandien aurretik korrika ibili ziren gaztetxoak, plazan Extremeñakoek antolatuta, migak dastatzeko aukera izan zuten herritarrek.



Landaberri ikastolari esker ona.- Erraldoien dantzarekin hasi zen ekitaldia lepo zegoen aretoan. Belaunaldi ezberdinetako ikasle, irakasle eta gurasoak hurbildu ziren Manuel Lekuonara Landaberri ikastolaren omenaldian parte hartzera. Aitortza ekitaldia hasi baino lehen, Ane Huizi, Estitxu Garmendia eta Miren Egizabalek ikastolaren hasierako urteak umorez islatu nahi izan zituzten. Jarraian, agurra dantzatu zitzaizen bertaratutakoei eta Lasarte-Oriako alkateak Jesus Zaballosek hartu zuen hitza. Landaberri ikastolak 1966tik gaur egunera arte egindako lana aitortu zuen. Landaberri ikastolaren izenean, guraso zein ikastolako ordezkariak hartu zuten hitza eta hauek hasieran hainbeste lan egin zuten guraso eta herritar haiei eskerrak eman zizkieten. Ibilbide luze honetan Landaberrin lan egin duten irakasle eta gurasoak ere aipatu zituzten, ikasleak, ordukoak eta gaur egungoak ahaztu gabe. Herria euskalduntzeko ikastolaren lanaren garrantzia aipatu zuten.



Ane Huizi, Estitxu Garmendia eta Miren Egizabalek hasieran umorezko esketx labur bat egin zuten, jarraian agurra dantzatu zitzaizen bertaratutakoei.



Ikasleek pailazoan 'Maite zaitut' eta bereziki urteurrenerako Atxegak eta Lasak konposatutakoa abestia kantatu zuten.



Ekitaldiari amaiera emateko, udal ordezkariak oholtzara igo ziren eta omenduekin herriko ereserkia abestu zuten.

Dantza eta Musika nagusi.- Sorgin Jaiak zerbaitekin identifika badaitezke, Kamioi Rock-a izan daiteke erreferente argienetako bat. Duela hamabost urte sortutako ideia horri ez zaio gasolina bukatu oraindik: kalez kale ibili zen kamioia, Rock Kam Broom taldea gainera igota egon zelarik, musikarekin herria alaituz. Kamioia martxan jarri aurretik Okendon, eztriak freskatu eta mokadutxo bat jateko aukera eduki zuten herritarrek, Ttakun KEK antolatutako sargardo eta Aterpearen sardina dastaketetan, hurrenez hurren. Tio Tenoren Semeak taldearen ikuskizun originala, dibertigarria eta freskoa izan zen. Emanaldia bukatzean, hainbat herritarrek astindu zituzten gorputzak Dabid Egizabal eta Maider Oiartzabalek gidatutako dantza tradizional saioan.



Aterpearen eskutik sardinak dastatzeko aukera izan zen eta Ttakunek sagardo dastaketa antolatu zuen urtero bezala. Jende pila gerturatu zen festaz gozatzen.



Tio Tenoren semeak ikuskizunak jendetza hurbildu zuen Okendo plazara. Dantza ikuskizun berrizale eta alai izan zen.



Hastapeneko Sorgin Jaiak oroituz, Kamioi Rocka antolatu zen Elebeltzen hasi eta Okendon bukatu zen jendea herriko kaleetan zehar dantzan jarritz.



Tripa bete ondoren, erromeria izan zen Okendon dantza gidatuekin.



Biyak Bateko konpartsak ibilbidea egin zuen txarangarekin ere erdigunetik.



Xexenen itzulera.- Ikusmira handia sortu zuen lasarteoriatarren artean haurrentzako xexenen itzulera. Zenbait urtez egitarautik at utzi ostean, Udalak aurten berreskuratu zuen ekitaldi hori, eta gaztetxoek ez zuten hutsik egin. Asko izan ziren xexenen aurrera ateratzera ausartu zirenak. Era berean, zenbait poniren gainean ere ibili ahal izan dira haurrak.




PHOTO AND FILM
LASARTE ORIA

Eztiphoto

~ 2009 ~
BESTE IKUSPUNTU BAT

www.eztiphot.com

EZKONTZAK ARGAZKI + BIDEOA
JAUNARTZEAK
HAURDUNALDI SESIOAK
HAUR ETA FAMILIA ARGAZKIAK
BOOK-AK

GOLF PLAZA 4
info@eztiphot.com - TEL: 943 900 565



Parranda gauari hasiera eman aurretik, Elizatze plazan Trapu Zaharrak taldearen 'A cal y canto' antzezlanaz gozatu ahal izan zen, Isla plazako dantzaldiek beste gau batez ez zuten hutsik egin.

Askotariko musika doinuak.- Metal-beltza, hardcore eta ska doinuekin batera esan zioten agur, herritarrek, San Pedro gauari. 23:00etan hasita, musika pieza ezberdinak eskaini zituen Azabache musika taldeak, Isla Plazan. Ordu eta erdi geroago, Hilotz, Bolbora eta Bar Remigio taldeen txanda izan zen. Okendo Plazako eszenatokian eman zituzten hiru taldeek euren musika emanaldiak Sorgin Jaiek antolatuta. Kontzertu eta kontzertu artean, sugarrez bete zuten zezen suzkoek herriko Kale Nagusia. Ohi bezala bertan jende andana bildu zen zezenen aurrean korrika egiteko prest.



Zezen suzkoak irten ziren gau erdian Kale Nagusitik, Okendon, kontzertu gauari hasiera ematen zitzaion ordu berean herriko Hilotz taldearekin.



SOCIEDAD CULTURAL

UDABERRI

elkartea

Ondo pasa izana espero dugu!

Andatza plaza z/g, behea - Tel. 943 37 19 83 - LASARTE-ORIA





Ekainaren 30a

Haurrentzako ekintzak izan ziren nagusi egun osoan zehar. Goizean jolasak eta buruhandiak izan ziren eta arratsaldean Sorgin Jaien eskutik, Irrien Lagunak eta magia saioak. Gauean, punk zaleek Txapelpunk eta Suturarekin gozatu zuten eta Gozategi taldeak beste behin jendetza erakarri zuen parranda gaua luzatzeko.



Jai goiz lasaia.- Lan eguna zen askorentzat eta hori nabaritu zen herriko kaleetan. Parrandero gutxiago ikusten ziren goizean goiz etxerako bidean. Hala ere, jai giroa nagusi izan zen. Txaranga doinuak izan ziren lehenak entzuten eta hauen deari erantzunez, haur eta gaztetxo koadrilak atera ziren kalera jaietan gozaten jarraitzeko asmoz. Andatza plazako haur parkean asko ziren guraso zein aitona-amonon laguntzarekin jolasean ari ziren haurrak. Adin guztiarentzako jokoak jarri ziren, futbolin erraldoia, puzgarriak... Erraldoi eta buruhandien konpartsaren atzetik elkartu ziren haur eta gaztetxoak oraindik ere buruhandiek tiroia dutela erakutsita. Okendon berri, Biyak Bateko kideen lerro dantza erakustaldia izan da. Hau beranduago hasi behar izan duten arren, ederki erakutsi dute ikasurtean zehar ikasitako guztia. Plaza ia txiki geratu zitzairen eta ikusleek txalo zaparrada luzeak eskaini zitzaizkien pieza bakoitza bukatzean.






Sudur gorri eta Txisterak.- Sorgin Jainen eskutik, ekintza bat baino gehiago izan zituzten txikienek. Pailazo eta magoek bete zen REM plaza. Irrien Lagunak taldea izan zen arratsaldeari hasiera ematen lehena. Koloredun arropak soinean jantzita agertu ziren. Gaztetxoek ondo baino hobeto ezagutzen zituzten abesti eta dantzak. Rafafa eta Toni magoen txanda izan zen ondoren.



Okendon Olinpiadak egin ziren eta bitartean, Brigitarren komentuan Biyak Bateko koruak bere emanaldia eskaini zuen.



Tortila txapelketan irabazle izan ziren Elaia Fadrique, Eli Casas eta Ana Valderrabano 29 parte hartzailearen artean. Isla plazan bigantzekin ederki pasa zuten haurrek.



**LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA**

Erribera kalea 10, atzealdea
943 36 29 97 - Lasarte-Oria



Herriko Oaintxe in deu! txarangak kaleak girotu zituen.



Elektrotxufiak herriko kaleak girotu zituen eta asko izan ziren atzetik ibili ziren herritarrek. Manuel Lekuonan, Ttakunek antolatuta bertso saio politaz gozatu ahal izan zen.



Musika eta bertso saioa parrandaren aurrekari.- Elektro Txuflaren doinuek eman zioten hasiera hirugarren eguneko parrandari. Herriko kaleetatik barrena ibili ostean, Pintore kalean eman zion amaiera emanaldiari taldeak. Elektro txarangaren azken donuekin batera, Kalera Fest jaialdiaren argazkiez osatutako bideoa aurkeztu zuten Esna Hadi elkarteko kideek. Bien bitartean, afari potea dastatu zuten Pintore kalean jarri zen barrara hurbildu zirenek. Bestalde, Manuel Lekuonan herritarrek gogotik gozatu zuten Ttakun KEk eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako bertso saioaz. Euren onena eman zuten oholtza gainean Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Andoni Egaña, Patxi Etxeberria, Maialen Lujanbio eta Unai Muñozak. Maila handiko bertso saioa izan zen eta herritarrek txalo zaparrada luzeekin saritu zuten bertsolarien jarduna, emanaldiak iraun bitartean.



Punk-a eta dantzaldiak- sutura eta Txapelpunk taldeen emanaldiak izan zen Pintore kalean. Trintxerpe eta Lekeitioko taldeek punk saio ederra egin zuten. Gauerdian, Kale Nagusian gora eta behera ibili ziren bi zezen suzko eta haur, gazte eta helduek ederki egin zuten korrika. Hau amaitzean, Jaizkibel plazara hurbildu zirenek Tsunami orkestraren eskutik mariachiak, salsa eta beste doinu ezagunak dantzatu zituzten. Egitarauari amaiera emanez, Gozategiren doinuek dantzan jarri zuten Okendo plaza beste behin. Herritarrek doinu ezagunen hitzak abestu eta ederki astindu zuten gorputza taldearen abestien erritmora. Abesti berriak ere eskaini zituzten. Asko izan ziren gaua luzatu eta ordu txikiak arte kalean egoteko gogoazaldu zuten herritarak.



Gozategik beste behin ere jendetza erakarri zuen Okendo plazara, belaundaldi ezberdinak elkartu ziren Orioko taldearen doinuekin abestu eta dantzatzeko.



Ondo pasa izan espero dugu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto semiberri, erabili eta KM0 salmenta
- Peugeot motorren salmenta


CENTRAUTO



Oria Etorbidea 4, 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 00 09 - Faxe: 943 37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es



Uztailaren 1a

Eguna eguraldi grisarekin esnatu bazen ere, herritar ugari ikus zitezkeen eguneko ekitaldi ezberdinetan parte hartzen. Ostadarren eskutik, toka eta bola jokoa aritzeko aukera izan zuten, haur eta helduek. Horrez gain, Andatza Plazan, haurrentzako puzgarriak izan ziren. Arratsaldean, kale nagusian barrena, buruhandi eta erraldoiak ibili ziren gazteenen atzetik korrika.



Haurren goiza- Ostiral goizean haur eta gaztetxoak izan ziren protagonistak herriko kaleetan. Ostadarrek antolatuta, toka eta bola jokoak izan ziren haurrentzat eta toka botaldia helduentzat. Helduen artean, trebezia erakutsi zuten parte hartzaileek, haurren artean berriz, denetarik ikusi ahal izan zen. Andatza plazan haur parkea egin zen, eta eguerdia iristearekin batera algarak hasi ziren Okendo eta kale Nagusitik. Buruhandi eta erraldoien konpartsa atera eta gaztetxoek atzetik ederki ibili zen. Ttiriki Ttarrakakoen doinuek gidatuta ibilbidea egin zuten herriko erdigunetik.



Buruhandiei beldurrik ez dietela erakutsi zuten beste behin ere herriko haur eta gaztetxoek. Erraldoiekin batera, Ttiriki Ttarrakakoen doinuek.



San Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero dugu !



**SAUSTATXO
KULTUR
ELKARTEA**



Uzturre plaza 8 • Tel.: 943 364942 • 20160 LASARTE-ORIA



Hogei bat lagun animatu dira aurtengo Oria ibaiaren jetsierara. Argazkian, horietako batzuk ikus ditzazkegu.



Festa giro ona, herriko txoko ezberdinetan.- Askotariko ekintzez gozatu ahal izan dira aurtengo San Pedro jaietan. Haurren gozamenerako, apar festa eta zezen suzkoa izan ziren herriko leku ezberdinetan. Gazteenek ere izan zuten non gozatu. Eguraldi txarra medio, izan ziren Oria ibaia jeistera animatu ziren kuadrilak. Puzgarriak hartuta, ibaian gotik behera jeisten ikusi ahal izan ziren herriko hogei bat lagun, ostiralean. Baina dantzarako aukerarik ere izan zuten. Villa Mirentxun, herriko The Garax musika taldearen kontzertuan bildu ziren, baita Madrildik etorritako La sombra del vaso musika taldearen kontzertuan ere. Bigarren honek, Kale Nagusiko arkupeetan eman behar izan zuen kontzertua, eguraldi txarraren ondorioz. Ondoren, Artistas del Gremio aritu zen arratsaldea girotzen. Eta helduenek ere, noski, izan dute festetaz gozatzeko aukera bat baino gehiago. Isla Plazan, dantzaldiak izan dituzte gauetan. Bertan ikusi ahal izan ditugu mexikar doinuekin, kumbiekin eta beste zenbait dantza doinuekin gorputzak mugitzen, giro apartean.



Herriko The Garax musika taldeak, Villa Mirentxun eskainitako kontzertuaren une bat.



Jende ugari bildu zen Sorgin Jaiak, Villa Mirentxun antolatutako kontzertuetan





Gazte ugari ibili dira aurten ere San Pedroetara ekarri dituzten barraketan.



Artistas del gremio taldeak ikuskizun paregabea eskaini zuen herriko kaleetan barrena.



Karisma musika talde nafarrak, mexikar doinuak eta kunbiak eskaini zituen kontzertuan.



Askotariko dantza piezak dantzatu zituzten Isla Plazara gerturatutako ikusleek.



**ERRAUSKETARIK EZ
EZ HEMEN, EZ INON!**

 **TRUMOI**
TABERNA

Hipodromo Etorbidea 3, LASARTE-ORIA

adats

ile-apaindegia

Ondo pasa izana espero dugul

Geltoki kalea 3
MUGIKORRA: 600 523 988
LASARTE-ORIA

LAGUNAK

 Festak ondo igaro izana espero dugul

Etxebizitzetako eta komertzioetako...

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA



Doctor Deseok lepo bete zuen Okendo Plaza.- Kontzertu ezinhobea eskaini zuen, Doctor Deseo musika taldeak, ostiralean. Prest zegoen herriko Okendo Plaza ikuskizunari hasiera eman eta kontzertuaz gozatzeko. Ezin zen ia-ia arnasik ere hartu, Okendon. Musika tresnak prest, gauerdia iristearekin batera igo ziren oholtza gainera musikariak. 'Iguar y diferente' diska berria kaleratu du aurten Doctor Deseok eta diska horretako abestiak entzun ahal izan ziren emanaldian. Kontzertuak aurrera egin ahala, giroa geroz eta biziagoa zen plazan, eta abesti zaharrak ere entzun ahal izan ziren. Traje ilunak soinean, eszenatokia argitzen zuten argi koloredunekin batera, ikuskizun atsegina eskaini zuen Francis Diez musikariaren taldeak. Bi orduko musika emanaldia eskaini zuten musikariek eta amaiera arte, jendez gainezka ikus zitekeen Okendo Plaza.

Doctor Deseok dantzan jarri zituen plazan bildutakoak.



Dantza giro bikainaz gozatzeko aukera izan zen ZoZongo! perkusio taldeak eskainitako Psycho-Clown eta Kolpez Blai ikuskizunetan.



Uztailaren 2a

Festetako azken eguna goibel esnatu zen. Euriari aurre egin behar izan zioten haur danborradako parte hartzaileek. Kirol probak, klasiko bihurtu den bakailao txapelketa eta jaiak ondo bukatzeko, su festa eta Ken Zazpiren kontzertuz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

Sokamuturrera jende asko hurbildu zen.



Bola txapelketa antolatu zuen Ostadarrek bolatokian. Bestalde, herriko pilota eskolan dabilzan benjamin, alebin eta infantilen txapelketak jokatu ziren frontoian, senide eta lagun andana gerturatu zen partidaz gozatzera.



Euriari aurre eginez, hasi zen haurren danborrada Okendo plazan. Bertan hainbat doinu eskaini zituzten lehenengoa Lasarte-Oriako ereserkia izan zelarik.



Okendotik irten eta Kale Nagusitik jarraitu zuten ibilbidea haur eta gazteek atertu arte aurrera egin zuten kupelak eta danborrak astintzen.



Bakailao goxoenaren bila.- Aurtengo edizioak ere arrakasta izan zuen. 16 bikote aritu ziren bakailoa ahalik eta goxoen jartzen. Azkenean, txapeldunak Juan Luis eta Txomin Yeregi izan ziren. Bigarren postuan Marian Bueno eta Ane Miren Sarasola sailkatu ziren eta hauek jaso zuten Buruntzazpi elkartearen izenean egurrezko koilara. Urte bete egingo du elkartearen. Bestalde, euria medio, paelladak ez zuten jende askorik erakarri Tximistarretara.



Raul Gomezek 500 metroko ibilbideari hiru buelta eta zaldiak bost egin behar izan zituen, garaile Guillermo Sanchez izan zen zaldi gainean. Zaldi lasterketaz ere gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.



Parte hartzaile guztiek argazkia atera zuten Atsobakar parkeko erronka bukatuta.



Mariatxi taldeak Isla plazan ordu bete luzeko emanaldia eskaini zuen.



Cabaret kale ikuskizuna Okendotik atera eta erdigunetik ibili zen.



Joxe Replay taldekoek dantzan jarri zituzten herritarrak.



Mota askotako doinuak izan ziren festen azken arratsaldean, Joxe Replay kale Nagusian aritu zen eta Son Candela Arkupe tabernaren parean.



Sorginak bagoaz zuengana,
 ilargipean, ekarriko
 zaituztegu gure ondora,
 erratzaren gainean.
 Etxean nahi zaituztegunako
DANTZAN AKELARREAN

...eta zabalik!



Su Festa ikusi, Sabironen dantzaldiaz gozatu eta azken zezen suzkoen aurrean korrikaldiak egin zituzten herritarrek.

Ken Zazpik zortzi urteren ostean berriz kontzertua eskaini zuen herrian.



'Phoenicoperus' azken diskako kantuek klasikoekin nahastu zituen Ken Zazpik.



Bad Sound Systemekin bukaera eman zitzaien 2016ko San Pedro jaiak.



• Ispiluak
• Beira apaingarriak eta alakatuak
• Merkataritzako instalazioak
• Dutzako pantailak
• Kristaleria oro har

DEL ORIA
KRISTALDEGIA

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel. 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

DANI KARROZERIA

Ondo pasa izana espero dugu!

KOLPE HANDIAK KONPONTZEN TREBEAK

- Kabina labedunak
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

Zirkuitu ibilbidea 12 • LASARTE-ORIA • Tel. 943 37 14 40 • Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriasdani@carroceriasdani.com • www.carroceriasdani.com



GOIEGI HOMES LASARTEKO BIZIGUNE BERRIA

Lasarte-Orian erroldatuentzat lehentasuna emango da.
1, 2 eta 3 logelatako etxebizitzak egingo dira, 36 guztira
Guztiak terrazak edo/eta jardinarekin
Garaje itxi bikoitzak
Kalitatezko materialeak
Eraikuntza erangikorra
Ingurune paregabea
Salneurri finkatua
Irailaren 30 arte erroldatuak



Maite **B**ETELU



Pertsonengan pentsatzen eraikitzen dugu.
900 11 00 22 - neinorhomes.com

Agenda

Osteguna 07, 22:00etan, Okendo plaza



Udako zine saioa

'Mad Max 4' filma ikusteko aukera izango da. Iragan ilun eta nahasi bat atzetik jarraika duela, Mad Maxek bizirauteko modurik onena munduan bakar-bakarrik ibiltzea dela uste du. Hala ere, Imperator Furiosak gidatzen duen War Rig ibilgailu batean basamortuan zehar ihesi doan taldearekin batu beharko da. Immortan Joe tiranoaren menpe dagoen Zitadela batetik ihes egingo dute. Amorrubiz, Gerraren Jau-nak bere gerlari taldeak martxan jarri eta "errepideko gerra" deritzen matxino taldea atzemateko asmoz, haiekiko gupidagabeko jazarpen anker bati ekingo dio. Eguraldi txarra egitekotan Elizatze plazan egingo da emanaldia. Gazteleraz.

Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 21, 22:00etan

'Bèlier familia' filma eskainiko da. Gazteleraz.

Dantza

OKENDO PLAZA

Ostirala, 20:00etan

'Ikuslearen showa' ikuskizuna Ertza konpainiaren eskutik. Eusko Jaurlaritzak sustatutako Lasarte-Oria Dantzan ekimeneko saioa da.

Argazki Rally-a

ORIA

Larunbata, 11:00etan

Auzoko argazki rallya egingo da Orian. Ekintza udalak abiatu duen Kultura Auzoetara egitarauaren baitakoa izango da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, argazki kamera eramatea beharrezkoa da. Hitzordua La Esperanza auzo elkartearen izango da.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Osteguna 14, 20:00etan

Markeliñe taldearen 'Crusoe' antzezlanaz gozatu ahalko da. Oraingoan bere uhartean bakarrik dagoen naufragoarekin jolasteko aukera izango da, bizitzari buruzko metafora bat egiteko.

Ipuin kontalaria

ISLA PLAZA

Ostirala 15, 18:00etan

Lur Usabiagarekin ipuin kontalari saioa Kultura Auzoetara ekimenaren baitan.

Tailerra

ISLA PLAZA

Larunbata 16, 11:00etan

Globoflexia tailerra egiteko aukera izango dute gaztetxoek.

Musika

ORIA

Larunbata 16, 20:00etan

Kultur Kale zikloaren baitan Psicoacoustic taldearen kontzertua.

Herritarren txokoa

Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Udako ordutegiaren arabera, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 bitartean irekia izango da. Kiroldetgia, 7:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna: 9:00 - 12:00 eta 17:00 - 21:00, zerbitzua erabiltzeko aldeztu aurretik -gutxienez ordu 1, gehienez 24 ordu eskatu behar da kiroldegiko atarian.

Larunbatetan eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara erabili ahalko dira instalakuntzak eta igandetan itxita egongo da. Sauna itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tartetan erabili ahalko da. Larunbatetan goizez izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandetan itxita egongo da.

Eskutitza

Telefonia mobileko operadoreak -Telefónica, Vodafone eta Orange- aurki hasiko dira Lasarte-Orian 4G sarearen zerbitzuak eskaintzen, 800 MHz-eko bandan. Horri esker, lasarteoriarrek abaila handiko konexio mobilak izango dituzte LTE (4G) teknologiarekin, estaldura hobe eta iraunkor eta hedadura geografiko handiagoa. Teknologia berria Lurreko Telebista Digitalarekin (TDT) bateragarria izango dela bermatzeko, operadoreek Llega800 jarri dute martxan, eta entitate hori arduratuko da telebistako seinalea jasotzeko sor daitezkeen edozein arazo konpontzeaz.

4G berria Lasarte-Oriara iritsita, aurrera segitzen du teknologia hori estatu osoan pixkanaka ezartzeko prozesuak. Lazko uztailean hasi zen prozesua, eta 2018ko martxoan bukatuko da, data horretarako aurreikusten baita teknologia berria erabateko hedadura egotea. Honako esteka honetan kontsulta daitezke zein herritan dauden zerbitzu berri horiek jadanik aktibo: www.llega800.es/listado-de-municipios-activos/ 4Gren hedadura irailaren 19ko 805/2014 errege-dekretuan ezarritakoan koka-

4G-a herrira iritsi da

tzen da. 2015eko apirilaren 1ean, 790 eta 862 MHz arteko frekuentziak liberatzeaz ekin zitzaion (UHFko 61. kanaletik 69.era), ordura arte Lurreko Telebista Digitala hartzeko erabiltzen zirenak. Liberazio-prozesu hori Dibidendu Digitala izenarekin ezagutzen da. Behin hori eginda, frekuentzia horiek telefonia mobileko operadoreei esleitu zitzaizkien, 4Gko telefonia mobileko zerbitzuak eskaintzaren.

4G sarearen bitartez, zerbitzu eta aplikazio berritzaileei atea zabaltzeaz gain, hobekuntza nabarmenak eskaintzen dira datuak —argazkiak, musika edo definitzio handiko ikus-entzunezko edukiak— deskargatzeko nahiz bidaltzeko abailan edo online aplikazioei —bideo-jokoei, esatera baterako— ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

"Telefonia mobileko sare abantzu honek bi hobekuntza funtsezko dakartza. Lehen abantaila da orografia zailarekin zerkusua zuten arazo konpontzen dituela, horrelako tokietan ohikoa baitzen estaldurak huts egitea. Beste abantaila nabarmena da penetrazio handia izango duela eraiki-

nen barrualdeetan", azaldu du Daniel Espínek, Llega800eko bozeramaileak.

4G teknologiaren belarri berriak halaber errazten du enpresen nahiz administrazio publikoen arloan zerbitzu berriak sartzea, hala nola eduki multimedia ugariako mobilitateko aplikazio enpresarialak edo bideo-deien erabilera, besteak beste.

Gainera, 4G teknologiak 800 MHz-eko bandan lortzen duen estaldura handiago horrek zerbitzua hobetu egingo du iraunkor barruan, eta banda horrek ahalbidetuko du zerbitzua geografikoki modu efizienteagoan hedatu ahal izatea.

Bateragarritasuna bermatzeko Llega800 entitate kudeatzailea arduratuko da 4Garen emisioa 800 MHz-eko bandan abian jartzearren eta TDT zerbitzua jasotzearen arteko bateragarritasuna bermatzeaz.

Bateragarritasun hori bermatzeko, Llega800 entitateak hainbat zerbitzu eskainiko dizkie dohainik herritarrei. Alde batetik, alde aurreko jarduketan moduan, afektazio handiko gunetan bizi diren herritarrek komunikazio bat jasoko dute beren etxeetan, jakina-

raziko diena une horretatik aurrera beren eraikineko antena dohainik egokitzeko eskatu ahalko dutela, gora-behera posibleak ekidite aldera. Eta, bestetik, prozedura zuzentzaile moduan, behin estazioak piztutakoan, Llega800 arduratuko da arazoak dituzten erabiltzaileak atentziaz eta arazo horien konponketa kudeatzeaz, inolako kosturik gabe.

Zerbitzu horiek kudeatzeko, herritarren eskura jarri dira dohainik telefono bat 900 833 999 eta web-orri bat www.llega800.es.

Lasarte-Oriako Udala

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4
943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus

Maite ETELU

- ✓ Aseguruak
- ✓ Etxebizitzen administrazioa
- ✓ Gestoria
- ✓ Aholkularitza
- ✓ Inmobiliaria zerbitzua



Jaietan ondo pasa izana espero dugu!

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117



LUIS CAR

autobusak

Jaiak ondo igaro izana espero dugu!



- Españiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxe:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

TABERNA KEBAB

Jaietan ondo pasa izana espero dugu!



DURÜM menua
 Txahala edo oilaskoa
 + patatak
 + freskagarria
6,50 €

KEBAB menua
 Txahala edo oilaskoa
 + patatak
 + freskagarria
6,00 €

Oilasko errea
 + patatak
 + entsalada
10,00 €

Lahmacun menua
 Txahala edo oilaskoa
 + patatak
 + freskagarria
7,50 €

Oilasko frijitua
 + patatak
 + freskagarria
7,00 €

Hamburgesa menua
 + patatak
 + freskagarria
6,00 €
Hamburgesa 4,00€

Hitz egiguzu euskaraz!

- Terraza zerbitzua
- Karta zabala
- Eramateko zerbitzua

Doan: Lasarte-Oria, Usurbil, Añorga, Zubieta eta Errekalde
 *Gutxieneko eskaera 10€

6 oilasko hegal
 + patatak
 + freskagarria
6,00 €

6 oilasko Nuggets
 + patatak
 + freskagarria
6,00 €

Oilasko Pop Corn-ak
 + patatak
 + freskagarria
6,00 €

Sagardotegi, 1 • LASARTE-ORIA • 943 369 533 / 632 483 161



Ttakuneko kideek San Pedro jai zoriontsuak igaro izana espero dugu!!

